

# **‘Zahagi zaharrear ardo berria’.**

## **Lan-kulturaren eginahalak egokitze ekonomikoan**

(‘Old wine in new wineskins’. The efforts of the working culture in terms of economic adaptation)

Anduaga Matud, Jaime

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.

20007 Donostia

janduaga@euskalnet.net

BIBLID [1137-439X (2009), 31; 369-390]

Jaso: 2007.11.16

Onartu: 2009.03.17

---

*Fenomeno globalean murgildurik, ondorioak, gehienetan sumatzen diren esparrua denbora/espazioarena da. Hurbiltasuna eta berehalakotasuna jada, ez daude halabeharrez lotuta, bi dimentsio sakabanatuta balira bezala erabiltzen ditugu. Honen proiektzioa iritsi da hirietara ere, espazio soziala eta denbora historikoa eraginez eta hauen bidez gure mundu ikuskapenera. Baina sistema horretan integratzea ez da espazio sozial orotan modu berean ematen; erantzunak, botere-harremanak lagun, ezberdintzen dira taldez-taldean.*

*Giltza-Hitzak: Globalizazioa. Metropolia. Lan-kulturak. Denbora/espazioa. Erantzunak.*

*Una vez sumergidos en el fenómeno global, el marco en el que se perciben las consecuencias es, en la mayoría de las ocasiones, el del espacio/tiempo. La cercanía y la inmediatez no están ya necesariamente relacionadas, las utilizamos como si fueran dos dimensiones dispersas. La proyección de esto también ha llegado a las ciudades, provocando el espacio social y el tiempo histórico, y a través de ellos, a nuestra visión del mundo. Pero la integración en ese sistema no se da de la misma manera en todos los espacios sociales; las respuestas, con ayuda de las relaciones de poder, son diferentes de un grupo a otro.*

*Palabras Clave: Globalización. Metrópolis. Culturas de trabajo. Espacio/tiempo. Respuestas.*

*Une fois plongés dans le phénomène global, le cadre dans lequel sont perçues les conséquences est, dans la plupart des cas, celui de l'espace/temps. La proximité et l'immédiateté ne sont plus nécessairement liées, nous les utilisons comme deux dimensions dispersées. Cette projection touche également les villes, provoquant l'espace social et le temps historique et atteignant ainsi notre vision du monde. Mais l'intégration dans ce système ne se produit pas de la même manière dans tous les espaces sociaux ; les réponses, en fonction de rapports de pouvoir, sont différentes dans chaque groupe.*

*Mots Clé : Mondialisation. Métropole. Cultures du travail. Espace/temps. Réponses.*

## SARRERA

Hiriak, mundu globalizatuan, saretuak badaude, globalizazio-prozesua egoera hori ekonomia arloan ematen duelako da. Hiriak saretuak daude globalak direlako eta globalak dira merkatu-ekonomiari dagozkion heinean.

Globalizazio ekonomikoaren kariaz urbanizazio-prozesua nabarmenki doa handitzen eta honen barruan hirien arteko ehuna gorpuzten ari da, baina ez denontzat modu berean. Hirien artean ere, badira kategoría aunitz. Hiri handien arteko sarea osatuta dago eremu metropolitano eragingarriez eta hauen eragina zabaltzen da inguruko beste hainbeste hiri txikietaraino, zurgatuz eta bereganatuz hauen baliabide eta espazioak.

Hiri sarearen garrantzia, hirien artean garatutako mota askotako fluxuetan datza, hiri saretuak dira, ekonomia, informazioa, aginte-maila, garraio-azpiegitura, energia, delako I+D eta abarreko gune. Beraz ez da harrizkoa ikustea bere ahalmen erakargarria gero eta handiagoa izaten dela.

Horren kariaz populazioa urbanizatzen ari da, eta metatzen da bere azaleran zabaltzen ari diren hirietan, aldi berean, handitzen da espazio urbanoen arteko ezberdintasun maila. Hiriak, harreman-mota jakin baten antolamenduaren adibidea izanik, espazio urbanoaren garapena, agertzen zaigu ordenu sozialaren ondorioz, baina bestetik eta aldi berean, espazio urbanoa agertzen zaigu *egitura egituragarri* gisa.

Egia da komunikapen-teknologiak ahalbidetzen dituela populazio-banakoen arteko harremanak baina bestetik sustatzen du banakotasuna. Banakoa, hirian, kulturalki, gero eta isolatuagoa da; hiriak, eredu globalari zer eskaintzeko eta modu lehiakorrean nola eskaini, bilatzen duen bitartean.

Globalizazioa eta lekukotasuna, bi gizarte-eredu eta bi eredu ekonomiko aurrez-aurrean paratuak inguru globalizatzaile eta postmoderno batean. Azken finean, aldaketa-prozesu bi erritmo ezberdinak dira, bi erritmoen adibideak dialektika eremuan kokatuta, edo hobeto esanda, termino manikeoak balira bezala.

Testuinguru horretan, globalizazioaren adibiderik hurbilena, Europar Batasuneko izaera ekonomikoaren ondorioak dira. Bitartean, "Europa" fenomenoak arlo sozialean eta kulturean izandako eraginak erantzun gabeko galdera aunitz sortarazi ditu.

Nola? zein motatako eragina du halako fenomenoak hiri txiki bateko arrantze kolektibo batengan? Nola gure inguruko hainbeste eta hainbeste giza-elkarreetan?

"Metropolia" da, testuinguru honetan, eredu berriko planta hartzen duen gertakaria, Donostia-Baiona Eurohiriaren itxurapean agertzen zaiguna alegia. Eremu geopolitiko horretan erkatzen dira, alde batetik, hiriaren sorrera edo erai-

kuntza –bere harreman-espazio dimentsioan eta baita urbanismoarenean ere– eta gizarte-harremanen aldaketa, eta bestetik, tokiko errealitatean, iraunkortasuna, ahalezko egiten duten baldintzak. Alboan utzi gabe horretan eliteek daukaten eginbehar garrantzitsua.

Hemen aurkeztu nahi dut globaltasuna esparru ekonomikoan hasten dela, baina ez dela bertan akitzen, bada alde soziala, erantzunei eta erabakiak hartzeari dagokiena eta egitasmo globalean zokoratuta gelditzen dena.

Hor planteatzen dut beste errealitate bat badagoela, giro urbanoan *a-urbano* den kolektiboa hain zuzen, esparru globala partekatuzera behartuta, egoera sozial berriaren aktore ez dena, ezta bere etorkizunean ere; egituratuta eta orekatua lan-kulturaren inguruan eta neurri handi batez, globalizazioan txertatuta izateko inolako baliabide kolektiborik gabe.

Ez da hiri bateko edozein lekutan eta edozein gertakariren inguruan sortutako harremanen kronika, ikerketa ez da zabala izan, ez da hiriaren antropologia baizik eta hirikoa, kolektibo jakin baten ekoizpen-harremanen inguruan zehaztuta.

Elkarrekintzak eta interpretapenak, zenbait baldintzapean, ez dute balio gizartea egiteko, gizartean bizitzeko baizik, hori gertatzen da igarotzen direnean zentzuzkoa izatetik funtzionalak izatera, konnotazio soziala edukizetik banako-irtenbideak izatera. Eta nahiz eta forma sozialak berdinak izan, hutsak dira, orduan sortzen dira *pastitxe* kulturalak, gizarte estetikoa eta jarrera nostalgikoa.

Ikusitako kolektibo arrantzale horrek burutzen dituenek ez dute lekuri paradigma berrian, ez alde ekonomikoan ezta bere egituran ere. Hauek eginak daude leku, garai eta espazio jakin batean baliagarriak izateko. Bere espazio soziala jarduera ekonomikoa eta lekukotasunarekiko loturaren arabera osatu zen eta oraingo honetan horiek biak aldatu dira.

Egoera honek ematen dio hiriri, hemen ere, barne-gune kategoria, espazio sozialak proposamen berrien arabera antolatuzera behartuta baita. Hiria dugu, beraz, fenomeno kolektiboa, diakronikoa; bere barnean gizarte existentzia partikular multzo izaten duena, bizipenez eta eskarmentuaz osatutakoa alegia, baina beretaz hitz egitean fenomeno sozial beraren bi adierazpen ezberdinekin topatzen gara: batean hiria, osotasun bezala, bestean hiria, kolektibo –edo banako– aunitzen osaketa gisa.

Eta antzeman dezakegu, biotan ematen diren harreman jakinak eta euren arteko jarrera ezberdinak, botere-jardueraren azpitik sortarazten dituztela, –delako hibridazio-egoerak, nolabait– batzuetan kuestionatuak baina gehien bat onartuak, nahiz eta azpian dauden botere-jardueraz kontziente izan.

Edozein kasutan populazioaren sopikuntasuna edo laguntza beharrezkoa da, prest egon beharko litzateke hartzaile gisa joko horretan sartzeko, intenzionalitate osoz eta era kontzientez.

Hori dela eta, tesi nagusia da, EB fenomenoak bihurtzen duela zentzu-komunitate *a-urbanoa*<sup>1</sup> kolektibo sozial urbano. Horrela, kolektiboak partekatzen duen komunitate-zentzuan aldaketa sakonak burutu behar dira, batez ere, bere identitatearen oinarria diren lan-jarduera eta lurraldetasuna sakonki ukituta suertatzen diren prozesuan eta honetan sortzen dira erantzun mota ezberdinak, kolektibotik zein banako mailatik.

Edozein kasutan, globaltasun prozesua ez da erantzun bakarra sortarazten duen gertakaria, eta horrek bere konplexutasuna areagotzen du.

Hemen aurkezten dut Hondarribiko arrantzale kolektiboa ematen saiatzen ari dena.

## 1. ESPAZIO URBANOA

Urbanoa da, banakoari emandako garrantziari esker, zirkulartasunetik kanpo ematen dela dirudien harreman-espazioaren izaera sozial egituragarria; espazioaren zentzu urbanoa sortzen zaigu gisa honetan, naturarekiko menpetasunik gabe, denboraren zirkulartasun zentzuarekiko, ustez, loturik gabe.

Denbora/espazio bikoiztasunak ez omen du jada izaera elkartua eta normati-boa, existentziala baino (Heidegger) Eredu egituratutik eredu egituragarrira igarotzen da, eta bertan aktoreen protagonismoa azpimarratzen da<sup>2</sup>, horrela zurituta-ko linealtasunean bilakaera printzipioa errazten da, eragiten da.

Historiari lotuta dagoen heinean, banakoa, espazioarekiko statusari lotuta gelditzen da, planteamendu horretan kolektibo-banakoa aurkakotasuna disolbatzen da eta ekintzarako gaitasuna eta kulturaren alderdi identitarioa espazio berri horretan garatutako instituzioei atxikituta azaltzen zaizkigu. Urtzen dira horrela

---

1. *A-urbano* kontzeptu hau erabiltzen dut, kontuan hartuta euskaraz, urbanoaren antonimoa adierazteko konnotazio ekonomiko-sozial, eta batzuetan morala ere dauzkaten terminoak erabili behar direlako (landa-, nekazal-, herri-, baserri-) Ez dut hemen erabili nahi zentzu mugatu horretan. *A-urbanoa*, –kolektibitate– denbora/naturaren zentzu jakinari lotuta dagoen egoera soziokulturaltzat hartzen dut, eta ez bakarrik lurrari lotuta, bere zentzu fisiko hertsian. Zentzu zabalean, naturari atxikituta eta denboraren kategoria zirkularrean dagoen edozein kolektiboaren egoera soziala da. Hortaz, ertza lausotuetako une horretan, non kaleetan gune “a-urbanoak” eta landan giro urbanoak agertzen diren, Tönniesek *Gesellschaft/Gemeinschaft* egindako sailkapeneko *komunitatetik* hurbilago izango litzateke. Edozein kasutan, eta urbanoa/a-urbanoari buruz dauden definizio anitzen artean espazio a-urbanotzat joko dut, geografikoki hiriri edo landari atxikituta egonik, naturarekiko lotura ekonomikoa eta modu ez-industrialean garatuta, bere barneko esparru pertsonalizatua eta arautua denboralitate a-historikoan garatzen den komunitate baten harreman-espazioa.

2. Ildo honetatik Meier Richard-ek. Paris: PUF, 1973, idatzi zuena zentzuz beteta dago: *L'urbanisation amenne avec lui la "despersonalisation" du temps*. Hala konprenitu izan behar da giro urbanoan, hirian, populazio a-urbanoaren egoitza.

3. Horrek ez du esan nahi aktore absolutu dagoenik, gizartean bi aktore mota daude, (guztizenez) zeinetatik bi eskarmentu mota eta bi oroimen mota sortzen diren, biak, hala ere, gizarte-kategoriaren azpian jasota daude, edozein kasutan banakoa aktore izango da bere kokapen sozialak ematen dion zilegitasunaren arabera jarduteko gauza bada.

buru-espazioa eta gizarte-espazioa, baina azkeneko hau espazio urbano bihurtzen denean bertatik ibiltzen den banakoa iragaitzazko bihurtzen da, edo hobeto esanda, espazio urbanoaren erabiltzaile iragaitzazkoa da<sup>3</sup>.

Hiriko espazioaren dimentsio urbanoan gizarte-elkarrekintzen subjektu/objektu kategorია bikoitza agertzen zaigu, planteamendu-ordenamendu urbanistikoa zein gizarte harremanetan, biak beharrezkoak dira gizarte aktoreen eskarmentua osatzeko baina horrek ez du gailentzen ahal sailkapen espazialaren determinismoa, horrek estutzen eta baldintzatzen baititu harreman sozialen espazio fisikoak.

Espazio urbanoan kode jakinez ibiltzen jakin behar da, eta noizko hiria den axolarik gabe hizkuntza amankomunari eusten dio, praxi espaziala irudikatzen da fisikoki espazio tridimentsionalean eta bertan interpretatzen da etorkizuna; ibilbide bezala, arrakastarantz, zorientasunerantz, kontsumismorantz, lanerantz edota aisialdirantz.

*Urbanoa* hirietan emandako dimentsio soziala izanik, eta bertan garatu bazen ere, hemengo testuinguruan *gizarte-harremanen ordenamenduari* dago-kio, bizi-jokabide bat da, aldakorra, kulunkaria, gizarte-harremanak ulertzeko era bat, printzipio ez-egonkorrean oinarritutako arau xortari darraion portaera soziala.

Gertatzen dena da bizimodu hori askoz errazago agertzen dela hirietan beste inon baino, autoren batek dioen bezala<sup>4</sup> *iragaitearen esparrua* da, harreman-kategoria ez-egonkorra, azalekoa, iheskorra eta funtzionala. Eta halako espazioan "errealitatearen" eskarmentua galkor bihurtzen da, baldin eta finkatzen ez bada irudikapenaren bitartez.

Urbanoak, beste denboralitate<sup>5</sup> bat erabiltzeko ez du balio, bere izaera berehalakotasunean finkatuta gelditzen da, erabilia bezain pronto desagertzen eta baztertzen dena, ez da pasagunea baizik, eta gainera, ez da *ez-espazioa*, zirrikituko espazioa da, bi uneen artekoan artesitua eta honetan dabilen banakoak ukatzen dio *locus* jakin batean finkatuta egoteari, praxian eta sinbologian mugitzeko ahalatasunaren alde baitago.

Espazio urbanoa horrela, igarobidea da<sup>6</sup>, bi gertakari, bi eskarmentu bi uneen artekoa, bi banakoen artekoa; haatik, bi horien arteko lotura osatzeko balio du. Lortzen da bere egitura fisikoan reifikatzea, nitxo ekologikoan alegia, arkitektura edo urbanismoaren bidez gehien bat, eta hirian gauzatuta kontsumo-jardueraren inguruan, eta halakotan banako-aktorea "desagertzen" da.

Gizarte-harremanen nolakotasunak, espazio-kategoriak definitzen dituen

---

3. Delgado, 1999: 35.

4. Ib Idem, 1999: 29.

5. Espazioaren tratamendu denborala, sailkapen mota bat da non espazio fisikoari eta harreman-espazio bakoitzari denbora historiko identifikagarria itsasten zaien.

6. Leroi-Gourhan, 1971.

heinean, espazio hori finkatzeko balio du, espazioa kategorizatzen da denboralitate batean baloreen eta ordenamenduaren printzipioen arabera eta instituzionalizatzen da ohiko bizimoduan.

Horrela espazioak, eremu egituratua/egituragarria balentzia dikotomikoa hartzen ditu, batetik bestera igarotzeko, beti ere, funtzioen aldaketa nozitu behar izanik.

Eta, hain zuzen, espazioaren elkarrekintza-eredua bideratzen duten teknologiak, komunikapen-sistemak eta lan-banaketak, aldaketa-mailaren objektua izan litezkeen heinean, aldaketa kulturala bidera lezakete. Bertan, eta hauetako bakoitzean, aldaketa-maila jakin bat emanda, "urbanizaziorako" prozesua agertzen da.

Urbanoa beraz, gizarte industrializatuan emandako gizarte-elkarrekintzan sortua eta posmodernismoan garatua den espazioaren antolaketatzat jotzen dut, hots, banakoak/kolektibitatea zein nolako planteamendu kulturalaren arabera antolatuturik<sup>7</sup> (finkatuta hiru osagai horien bidez) Bertatik sorturiko elkarrekintza-aren ondorio da.

Giro urbanoko espazioak, hortaz, ez du zerikusirik nonbait kokatuta izanarekin baizik eta kolektibitate batean ematen diren elkarrekintzak eta eskarmentuekin, edo bestela esanda, *a-urbanoa*/urbanoa bikoiztasuna ez da espazio geografiko batean edo bestean kokatutako komunitateei dagozkien kategoriak baizik eta ekoizpen-harremanen arabera antolatutako espazioari. Beraz, gaintzen dut baserria-rurala-isolamendua/hiria-*urbanoa*-komunikapena identifikazio bikoitza, kasu honetan eraginkortasuna ezarengatik.

Kontuan hartu beharko genuke gizartea eta aktorea erritmo ezberdinetan mugitzen direla, baita denbora ezberdinetan ere; hau da, ekintzen denboralitate propioa daukatela eta gizartearen aldaketarena banakoarena baino azkarragoa izanik, prozesu horretan banakoa prest dago –edo behartuta dago– erabiltzera gizartearen indarrean dauden sinboloen esanahiak errealitatea osatzeko.

Baina gizakiak –banako gisa– espazio politikoa irudikatzen du irudikapen-espazio batean, bertan aurkitzen ditu bere eraikuntza eta interpretazioa burutzeko zirrikituak non historiaren -oraingo honetan espazioaren historiarena– interpretapena espazioaren irudikapenerako aitzakiatzat hartzen den.

Espazioaren bideragarritasunak eskatzen du errealitatearen interpretapena irudikapen espazio batean emana izana. Sinbologiaz mediatizatu espazio batean non urbanoa edo bestelako taxonomiak, besteak beste, sortzen diren. Horrela gizakia irudikapen espaziotik espazioaren irudikapenera igarotzen da eta honetan, arkitektura-espazioak –kultura ezaugarria eta sinbolo iraunkorra den neurrian– sinbolikoki, gizarte-espazioa zuritzen du.

---

7. Kontuan hartu behar dugu espazio urbanoaren eraikuntzan banakoaren irudia ezinbestekoa dela, baina honek ez duela ukatzen bere protagonismo sozialaren eza.

Espazio urbanoak ordezkatzen du oroimen historiko-kolektiboa (lurraldetasuna/identitatearen bikoiztasuna) kultura irudikatuaren merkatuaz. Ordenamendu urbanoak, zentroaniztun funtzionalez osatuta, irudikatzen ditu, alde batetik, hiria ez dela osatua bere aktoreek eta bestetik badirela hirian aktoreak indar berriak kontrolatu ezin dituztenak.

Hiria gaur, globalizaziotik<sup>8</sup> ondorioztaturiko fenomenoaren isla-espazioa da, fluxu ezberdinen gunea non adostasunak eta jarduera politikoak beren zentzua galtzen duten. Hiriak berreskuratzen du indar osoz espazio sinboliko/materialaren izaera, bere biztanleak hautemate partikularra galtzen duen neurrian, hiria ez da pentsatuta, ezta bizituta ere osotasun bezala. Hiriak, espazioaren antolakuntzaz eta sailkapenez baliaturik, bere erreproduktzioarako baldintzak bermatzen ditu, bere izaeraren funtsa zirkularra da eta eginbehar horretan ez ditu aintzat hartzen biztanleak.

Globalizazioak, Mendebaldeari dagokion *baldintza posmodernoari* itsatsita dagoen fenomeno soziala izanik, hirian indarrean jarritako ereduaren bidez eskatzen du estetika sozialaren printzipioa erabiltzea, biztanlea mugitzen da medio horretan eta elikatzen du ordena objektiboa. Banakoa mugitzen da ordenua osatzeko kidego baten partaide gisa, identifikatuta, nolabait, baina bere hartan, banakoa, baliabide ordezkarria da.

Banakoa, ordenu horren partaide izateko gaitasuna edota ahalmena galduz gero esparru partikularrean alboratuta gelditzen da, banakoa gailenduta dago objektibotasunaz eta egoera hau bere *habitusenean* ainguratuta dago.

Hortik igarotzea banakoari suposa lekiokkeen egoera traumatikoak ez du ezertan eragiten gizartea, honek ez du nozitzen aldaketa, ez zaio eragiten banakoaren aldaketa edo galera ezta honen degradazio kategoriala ere, hau banako-mai-

---

8. Delako globalizazioa egungo unibertsoaren paradigma bihurtuta asintonia historikoaren saiera da, gure artean aspalditik izan dira globalizazio mota ezberdinak, hauetan jarduera ekonomiko lokalizatuta egon da historikoki esparru geopolitiko edo sektorial zehatz batean eta orain hori zabaldu da, hainbesteraino non, eta U. Beck-i jarraiki– globalizazio prozesu hau globalismo arlo ideologikoan eta globaltasuna arlo kulturean zabaldu den. Horregatik eta jarrera kritiko batetik ezin dugu globalizazio horren alde asko mitotzat baino hartu; esan nahi dut, globalizazio fenomenoaren instituzionalizazio dugun neurrian finkatzen laguntzen dugula eta gainera arazo teoriko gehiago sortarazten digu. Global/Lokal bikoiztasunaren inguruan sorturiko eztabaida izango litzateke hauetako bat non, globalari eta lokalari buruzko interpretapen berriak hartzea behartzen gaituen. Globalizazioa, beraz, errealitate ekonomikoaren interpretapen baten irudikapena da, eta hemen eusten zaion moduan, espazio jakin bat sortarazteko baldintza, non egokitu behar direnak "besteak" diren. Hortxe hausten da kultura ezberdinen arteko elkarrekintza. Globalizazioaz mintzatzeak eta gertakari sozial oro globalizazioaz mediatizatzeak gertakariaren deskontestualizazioerantz eraman gaitzake, globalizazioaren irudikapenak gainean dugun saihestezinezko gertakari osoa eta urrunaren ideia garamatza.

Finantza kapitalaren mugikortasunak, lekuan lekuko historien eta kulturen gainetik ibiltzeko gaitasuna dauka; kontsumismoa, dinamika horretan, globalizazioaren sarturiko kulturetan errotzen da, produktuak eta ekoizpenaren inperio ideologikoa nagusitzen dira eta testuinguru horretan hiriak berak "produktu" bezala agertzen zaigu.

Beste testuinguru batean identitateak eskaintzen zuen duintasun maila, lan jarduerari, lurraldetasunari, etnizitateari edo dena delakoari lotuta agertzen bazen ere globalizazio prozesuan kontsumismoari lotuta baltz bezala jokatzen ari da, elkarrekintzan –eta kulturen– desintegrazio eta segregazio fenomenoak sortaraziz.

Anduaga, Jaime: 'Zahagi zaharrean ardo berria'. Lan-kulturaren eginahalak egokitze ekonomikoan

lan, bere baitan suertatutako ez-ustekoa omen da eta berak aurkitu beharko luke egoera berrian legokiokeen *locusa*.

Gizarteak ezartzen dituen baldintza objektiboak banakoaren subjektibotasunaren gain irauten dira eta banakoak, hartan jardun nahiz gero, dagokion kolektiboaren gain eta arrazionaltasunez jokatu beharko luke. Bide eman beharko lioke bere banakotasun aldeari, eta horretarako, espazio/denbora bikoiztasunean murgildu behar zen, arau berrien arabera.

Horrek esan nahi du bere arduraz, erantzukizunez, baliabideez eta uzten zaion askatasunez jokatu beharko lukeela. Une horretan ez du jada bere jarduerara eta erabakiak babesten dituen ziurtasunik; hautaketak eta arriskuak, ordezkatzen dute tradizioaren errepikapen-ziurtasuna eta bere proiektuak aldentzen dira kolektibitate kulturalak ezartzen duen hautaketa-gerritik.

Inguru honetan hautaketak, giza-aniztasunak adina dira, baina bere esparru eragingarria inguruko elkarrekintzen markoan geldituko da mugatua. Egoera global berriotan sortutako harreman-espazioak, espazio urbanoak, ahalbidetzen du bestelako harreman-mota burutzea, eta sustatzen dira ildo honetatik behin-behineko harremanak, funtzionalak, birtualak, bananduak, gutxiengo hartu-eman soziala eta interesatuari eusteko doa, (sentipenezko eta harreman afektiboak beste nonbait garatzen dira eta).

Lekukoa ez da, jada, dimentsio espaziala, bizi-kualitatea da "urbano" izatera datorrena, eta bertan erreferentzia amankomuna edukitzeko beharrezkotasuna bideratuta dago instituzioen aldera jokatzeko, Estatua izanik jomugarik koherente eta logikoarena.

Eta halako testuinguru batean, hiritartasunaren planteamendua aurkezten denean, nabarmentzen da hiri-identitatearen mugak, izatekotan, ez daudela hirian bertan derrigorrez eta soilik kokaturik, espazio urbanoan baizik, hiriaren alde geofisikoak ez du jada mugatzen kultura urbanoaren garapena.

Bada, beraz, alde bat, hiri aurreikusien –hautemana– eta denboran zehar sortutakoaren artean, giro urbanoak gizarte-espazioa irudikatzen duen bitartean, urbanismoak espazio fisikoa sailkatzen du, biak izanik errealitate beraren aldeak.

Une société, c'est un espace et une architecture de concepts, de formes et de lois, dont la vérité abstraite s'impose à la réalité de sens, de corps, des vœux et des désirs (Lefebvre, 1974: 163).

Gizartea horrela, zentzu abstraktua lagun, instituzionalizatzen da, banako-errealitatearen gainean kokatuta dagoen izate normatiboa, espazio kontzeptuala da, non banakoa, uzten zaizkion erabakien bidez, abstrakzioan lotuta gelditzen den. Abstrakzio honetan finkatzen da linealtasun denborala ekintza-marko gisa, eta, bitartean zirkularitasuna da, gehien bat, kolektiboan barrena, edozein banakok eskatzen duen dimentsioa.



Egoera urbanoan ematen diren ezaugarrien artean agerian gelditzen da ustezko kontraesan horren isla, alegia, ustezko linealtasunean. Eta isolatuta gelditu gabe, denbora zirkularrean jarduten duena badela, egoera horretan erreproduzioaren oinarriak finkatzen dituen, subjektuaren historizitatean emandako mota ezberdinetako harremanak eta bizipenak aintzat hartuta.

Komunitate globaleko markoan kokatutako espazio hori definitzekotan ez da mintzatzerik elkartasun mekanikoaz, eta elkartasun organikoak galtzen ari da zentzua, gizarte antolamendu honek, eta batez ere honen inguruan garatutako eredu ekonomikoak eta espazio ezberdintasunak zilegi gaituzte *elkartasun funtzionalaz* hitz egitera.

## 2. LAN-KULTURA

Egun hiria da, aldi berean, aldaketaren objektua eta subjektua, baina globaltasunaren periferian badira hiriak non, oraindik, aldaketaren prozesua burutu gabe agertzen diren, hauetako zenbait kasutan lan-kulturaren fenomenoak begibistan gelditzen da, hau da, jarduera ekonomikoaren eta lurraldearen arteko harreman historikoaren gune dena, bertan, lan-kulturaren eta identitatearen arteko harreman kausala ematen da, edo bestela esanda; lehiatzen ari da, "kultura-klase" bezalako egoera, bere protagonismoa edukitzen jarrai dezan.

Lan-kulturaren subjektua izatea erabilia izan da lekukoak identitate "globalean" sartzeko abantailazko baldintzat. Txingudin topatzen gara ezaugarri amankomuna daukaten hiru hiri horiekin, muga-izaera daukatenak, baina Hendaia eta Irun hiri-espazioak diren bitartean Hondarribia denbora-espazioari dagokio. Hondarribia ere muga-hiria da baina bere nortasuna, izaera arrantzalearen bidez lortu du, lan-kultura zehatza<sup>9</sup> zeinari hiri-elitearen izaera eman dioten.

Muga espazio-denborala hau finkatuta gelditzen da biztanleen buru-definizioan. Hendaian eta Irunen muga-izaera izan da hautaketa ezarrita, besteen artetik. Aukera honetan, eta elite batek markatutako ildo jarraituz, espazioaren interpretapen jakina finkatu da batzuentzako mesedegarria izan den eskarmentu baten bidez, alegia, muga izan zen zentzu askotan, ongi bizitzeko eta prestigiozko egoerari eusteko.

Hondarribiko kasua antzekoa bada ere, ez da berdina, batez ere muga-izaera hori historiaren interpretapenaren bidez lortu delako. Hemen izaera liminalak, espazio ez-egonkorrean eta aldakorrean behin behineko sentipena finkatu beha-

---

9. Honetan Italiako soziologjaren sektore batentzat "el énfasis, es puesto en el ámbito ideacional, en las condiciones sobre el trabajo" Etnologo frantziarrek, aldiz, finkatzen dute bere arreta kultura teknikoan, alegia banakoek jakintza eta ezagutza mailan, banakoa lan-prozesu jakinen subjektua den heinean. Halaber lanaren antolaketaz eta horren banaketa teknikoaz eta sozialaz ere arduratu ziren, eta era berean oinarritzen zuten beren ikerketa lekuko identitatearen eraikuntzaz. Euren hipotesiaren arabera lekuko gizarte batzuek ezaugarritzen zuten identitatea zenbait ekoizpen-jardueren marka-irudiaren bitartez (Moreno, 1999: 27). Lan honetan itsasten natzaio azkeneko interpretapen honi, batez ere suposatzen duelako arrantzaleak burututako lan-jardueran ez duela ematen alienazio printzipiorik, ekoizpen materiala eta erreproduzio baldintzak bere mundu-ikuskeraren osagaiak baitira eta egoera hori bigarren interpretapen horretan hobeto kausitzen da.

Anduaga, Jaime: 'Zahagi zaharrean ardo berria'. Lan-kulturaren eginahalak egokitze ekonomikoan

rrean erabili da identitate-ezaugarria osatzeko, alegia iraunkortasun-zentzua lortzeko. Mugak ez du balio izan biztanleak deslurreratzeko baizik eta denboralitatean zehar emandako re-interpretapenean finkatzeko.

Lan-kultura garatzen da, hortaz, jarduera ekonomikoaren eta afektibotasun-maila ezberdinen inguruan, kolektiboa osatzen da lan-baldintzen inguruan eta finkatzen da oroimen kolektiboan. Baina lan-jarduera, berez, ez da erreferente identitario izateko aski-baldintza, horretarako, landua izan behar da ondare kulturala izan dadin, beharrezkoa da espazio sozialaren osagai iraunkorra izatea eta batez ere, egoerari buruzko kontzientea izatea. Orduan, eta ez beste inoiz, itsasoa eta itsasoan garatutako lana existentzia-baldintza da. Halako baldintza-peetan lan hori ez da ikusita izan salgaitzat, eta beharbada, horretan datza kolektibo horren egungo tragedia.

Lan-jarduera erreferente identitarioa izateko kultura-sistemaren barruan produkzioa/erreproduktzioa bikoiztasunaren lotura agertu behar da. Hau da, kidegoaren ondare gisa naturalizatzen duen diskurtsoa agertu behar da. Egoera horretan kidegoaren presentzia beharrezkoa da erreproduktzio esparruan, produkzioarenean banakoaren presentzia beste.

Espazio soziala osatzeko lan-jarduera erabiltzen bada, banakoaren errealitatea kolektiboari itsatsita agertzen da lan-jardueraren bidez. Espazioko baliabideak lan-jardueraren bidez garatuta, eragina geldituko lirake ekoizpen eta gizarte harremanak, gainera, pentsatzen dut eragin hau arlo afektiboan eman behar dela.

Hirien konfigurazio urbanistikoan, merkatu ekonomiarri ahalik eta hoberen jarraitzeko zantzuak agertzen dira, hiri-sarea enpresen sare funtzionalaren arabera osatuta dago eta horrek berak baliogabetzen du garai bateko instituzio politikoek osatu zuten sarea, azkeneko honek nazio-estatuan mugak edukitzen zituen bitartean beste hura mugaz gaindik garatzen baitzen.

Sistema ekonomiko horretan lana, salgaia bainoago osagai kulturala izanik, bere izaera-aldatzeak ekar lezake (ekarri du) sistemaren orekaren haustura. Merkatu-ekonomian, lekuko kolektiboaren oinarrizko elementuak, itsasoa, lan-kultura, espazio soziala eta instituzioak, kontzeptualki aldatzen dira, ez dute jada balio babes kulturala emateko, arrantzaleak ez du jada arrantzatzen kolektiboaren mesederako, bere jarduerak jada, ez du balio bere erreproduktzioarako sisteman, jomuga berria merkatu-sistema da eta aldaketa horretan, bere etorkizuna erregulatzeko aukerarik gabe gelditurik, gelditzen zaion gotorleku bakarra da sinbolismoak eskain diezaiokeen aterpea.

Lan-prozesu guztien ondorioz sortzen dira ekoizpen eta gizarte harremanak baina globalizazio ekonomikoaren prozesuan, nahiz eta lan-jarduera berdinari ekin, espazio sozialak bere planteamendua egokitu behar izan du alde aurretik, eskakizun sozial globalaren arabera, areago ere jarduera ekonomikoa denean aurretik aldatu dena.

Haatik, ekoizpen eta gizarte harremanak, lan-kulturaren oinarrituta dagoen kolektibo batean, nahastuta agertzen dira ezaugarri identitarioekin eta orduan ez da hain garbi agertzen zein den aurreneko eragina. Ea premiazkoa den alde aurretik eragitea kolektiboaren alde ideiatikoa –sinbolo, balore, usteak, sinismenak eta errealitatearen interpretapena– gerora terziarizazioarako bidea ezinbestekotzat jotzeko edo ekoizpen-baldintzen eraldaketa eragitea berauek onestuak izan daitezen, behar den espazio soziala lortzeko.

### 3. EUOPAR IDENTITATEA

Europar Batasunaren fenomenoak ez da bat batean sortu, ez da gertakizun espontaneoak izan eta bere historiak, mezu ofizialistaren gain, baditu beste interpretapen aunitz kontuan ere har daitezkeenak.

Europar Batasunaren (EB) fenomenoak, Europako indar hegemoniko ezberdinak ongi finkatzen saiatzen ari den eredu ekonomikoak da. Estatuak, eskualde nahiz tokiko mailan, EBi dagozkion agintari politikoez, akademikoek zein finantzieroez, eredu sozio-ekonomiko horren arabera normaldu eta objektibatu nahi duten eredu politiko-administratiboa da eta alde horretatik EB, espazialki lekukotasunaren erreferente bihurtu den bitartean maila sozialak urrats testimonialak baino ez ditu garatu eta hauek, beti ere, merkatu-ekonomiarekin batera etor daitezzen eginak.

Zalantzarik gabe gizarte kontzeptua, posmodernitatearen osagarri diren bi mitoz osatuta dago, ordenu soziala (iraunkortasuna) bata eta aniztasunerako errespetua (berdintasun soziala) bestea, hor kokatzen da Europar Batasunaren funtzionamendu sozialaren paradigma, behintzat kalera begira, ze fenomeno europarra izaera ekonomikokoa izanik bere jarduera zuzitzeko bi esparru horiek eragin behar ditu, edo hobeto esanda, baten bidez bestea eragin. Ez da zentzu bakarreko jarduera.

Baina aniztasun horretatik ez da ondorioztatzen inolako armoniarik, ez behintzat giro urbanoan; adostasun sozialik (Gizarte Ituna) ez da existitzen, dagoena da botere-harremanen tentsioaren emaria eta *itun sozialeko* formula, jarduera politikoetan erabiltzen bada diskurtso ideologikoan txertatutako bestelako interesen estalketa burutzeko da.

Beraz, oreka soziala eta ordenamendua, izaera normatiboan eta preskriptiboan oinarritu behar dira. Aniztasuna, horrela, globalizazioaren garaiko balore sozialtzat hartuta, identitatearen oinarri bezala zabaldu nahi da gizartearen arlo guztietan. Hau da, giro makroan finkatutako identitate printzipioek eragin behar omen dituzte lekukoak, eta hemen, dena delakoak izanik, onartu beharko lukete "goitik" datorrena.

Kontuan hartuta edozein kolektibo, txikia bada ere, beste kolektibo handiago bati dagokiolako ziurtasuna badela erraz igar daiteke proposamen horren finkapena, hau arlo sinbolikoan betetzen bada ere.

Alde sinboliko horretan espazio urbanoko konfigurazioak balio erantsia du, horrekin batera edo horren bidez zuzitzen baita sistema ekonomikoak behar duen espazio urbanoaren eraikuntza edo egokitzapena, eta horrek dudarik gabe, Lurralde Antolakuntza berriaren aurrean kokatzen gaitu.

Gai honi buruzko diskurtso ofizialean, horiek dira integrazioaren beharrezko-tasuna zuzitzeko agertzen diren arazoak, baina Europan egoteak ez du bakarrik esan nahi espazio sozial bakar batean gaudela, honez gain partehartze zuzena hartu behar dugu denbora sozial batean eta prozesu historiko jakinean. Tintontzian gelditzen dira bitartean bestelako espazioen tratamendua.

Europar Batasuneko komunitate ezberdinetan, *kapital sozial* mota berriak osatzerakoan ematen diren egoera bikoitzak zer ikusi zuzena daukate globalizazio prozesuekin. Bi dira ekintza-esparru berriak: bata makroa non EBetan sortzen diren eremuetan, eta jomugak behin finkatuz gero, estatuen eta *lobbyen* arteko harreman arautuak ematen diren, alegia, "lankidetz" edota "elkarren menpeta-suna" deritzona.

Beste esparru bat agertzen da lekuko mailan, non Europa mailan sortutako esandako aurreneko egoeraren ondorioz, elite berriaren sorkuntza hauteman ahal dugun, egoera hark sustatu ditu lekuko esparruetan botere adierazpen berrien sorkuntza eta garapena, eta noski, botere-harreman eredu berriak ere.

Testuinguru horretan ezin da esan identitate formalaren hastapenari eusten direnik, *kapital* horretan oinarritutako adierazpen berriak etengabe sortarazten dituzte nortasun-mota berriak, funtzio berrietan jarduteko. Identitate etnikoan oinarritutako "nazionalitatea"/*hiritartasuna* bikoitzasuna hautsiz eta nortasunaren marko berri aunitz sortuz.

EBetan lantzen ari da hiritarra-banako administratibo berriaren irudia, omen dagozkion eskubideetatik hasita identitatearen ertzearaino, honekin finkatu nahi da, esparru global batean eraginkorra izateko, banakoaren marko juridiko eta administratiboa. EBen proiektuaren azpian, bera zilegituko lukeen banako beilari eta malgua eratzea ezinbesteko eginbeharra da eta horretarako, gizarte urbanizatu berri batean biziko diren hiritarren kontzeptu berria osatu behar da.

Esparru zibilar dagokionez, Europar Batasunaren markoan, arazotxo bat suposatu zuen hainbeste estatutan besteko nortasun mailak izateak eta honen aurrean EBek auzia bideratu du, ez, pentsa zitekeen moduan, aniztasun hori oztopatuz, baizik eta oraindik ere, identitate berri bat gehiago sortarazteko baldintzak ezarriz eta aldi berean, hau eta besteak arautzeko gerriko estuan barne sartzeko baldintza juridikoak finkatuz.

Hartara, Europan integrazteko prozesuak nortasun ezberdinen garapena sustatu duela esatea faltsua ez bada ere, berri manipulatu plazaerata da. Egoera berri honek suposatzen du orain arteko nortasun etnikoaren hastapenak kolokan gelditzea (batez ere lan-kulturan oinarrituta badira) eta eredu berri baten aurrean izanik, boterearen lekuko korrontek eskakizun multzo berri bati erantzun behar diotela.

Egoera zaila da eta bideratu ahal izateko EBek planteatzen du marko eragin-garri berri bat, hau da, egungo marko kulturala. Europako nazio ezberdinen nortasun-altzoan txertatutako zentzu-komunitate europarraren izaeran datzana.

Eta zentzu identitario europarra horretan dautza, hain zuzen, EBen proiektuari zilegitasun soziala emango dioten baldintzak, baina bateraezinezkoak, bes-tetik, orain arte eraginkorrak izan diren nortasun ereduekin.

Oraindik ere "europarra" izatea askoz hurbilagoa da afekzio mitikotik erreali-tate politikotik baino, eta arrazoiren bat izan liteke kontzeptu horrekiko *hiritarrak* duen identitate-zentzuaren hutsunea.

Gure buruei galdetzen diegunean zergatik garen europarrak, gailentzen den erantzuna askoz lotuago da kokapen geografikoari kulturari baino. Hor sortzen da identitate europarraren arazoa; Europan kokatutakoak "txokokoagoak" gara euro-parrak baino eta ez da harrizkoa, Europan ez baita existitzen zentzu klasikoko identitatea oinarritzen duten osagairik, horregatik akaso, "europarra" izateak lotu-ra ezkorra du garai hauetan, globaltasunak ahalbidetu duen fenomenoaren ondo-riokiko (inmigrazioa, kasu) edo akaso, globalismoak sustatu dituen ezaugarriekin (indibidualismoa, neoliberalismoa, demokrazia ordezkatzaillea e.a.).

Habermasek proposatu zuen arabera, identitate europar ideal bat erabat lotuta egon behar zen hastapen konstituzionaleei, hau da identitate "birtuala" nolabait. Orduan *hiritartasun europarra* (Maastricht 1993) eta *identitate europa-rra* bi kontzeptu ezberdinak izanik azkeneko hau bestean oinarrituta izatea nahi izan dute.

Delako identitate europarra bereganatzeak suposatuko luke erritmo europa-rraren arabera mugitzen jakitea, denbora sozial europarra ez da jada linealtasu-nik jarraitzen duena, nahiz eta hala baieztatzen den, berea Merleau-Ponty-ren, *intenzionalitate-sarea* da<sup>10</sup> eta honetan intenzionalitatea ekintza bihurtuta, hiri-sareak islatzen du denbora europarraren jarduera soziala.

Akaso arazoa, Europar Batasunak garatzen duen diskurtso bikoitzean datza. Burujabetasuna eta EEBekiko menpetasuna, berdintasuna eta hierarki mailak, garraio azpiegiturak eta ingurugiroko politikak, ongizate gizartea eta pribatizazio-ak, bakea, garapena eta armamentismoa, oinarritzko eskubideak eta inmigrazio politikak, dirulaguntzak eta asistentzialismoa, merkatu ekonomia eta politika sozialak e.a. Bertan aurki dezakegu *biolentzia sinbolikoaren* adibide xorta.

Europar Batasunak suposatu du Europako historia garaikidean Erdi Aroan kristauteriak suposatu zuen lokarri bateragarria, dogmatikoa bere arauetan, era-gile bere ekintzetan, eurozentrismoa bere diskurtsoan, klasista bere antolamen-duan eta irudikatzailea bere proiektioetan. Potentzia ekonomikoa izateko baliabi-deak alegia.

---

10. Dauliach.C (1996: 109) Valencia Garcia G-k aipatuta. *La notion de temps chez M, Merleau-Ponty*. In: Martine Meheut et al. *Penser le temps*. Paris: Ellipses.

Ematen du halako egoera orokorrak ez duela inolako loturarik gure proiektuarekin baina ez dezagun ahantzi mundu globalizatuan kokatutako egoera dela, non hiriak egitura saretan kokatu behar ditugun eta batean zein bestean irudikapen sozialaren indarra eta eragina azaltzen diren.

Europar Batasuna bilatzen ari da *batasuna* kontzeptuaren ezaugarri sinbolikoak, fenomenoaren eta beronek eraikitako "hiritar" kontzeptuaren artean identitatearen antzeko zerbait sor dadin eta bertan afekzio printzipioa txertatzeko. Hasi zen beste edozein erakunde zilegituak dauzkan objektu sinbolikoez zuzkitzen eta balliatu zen sinboloek daukaten balio komunikatzaileaz, tradizioz ez zeukan batasuna hiritarrengan eriteko, horrela, eta Europar Batasuneko Itun Konstituzionaleko 1-8 artikuluan agertzen den lez, bandera, ereserkia, moneta eta leloa agertu ziren.

Honekin baina, lortu al da EBen irudia hurbiltzea?

#### 4. BANAKO AKTOREA

Talde *a-urbano* honek, jarduera arrantzalearen inguruan bere identitatea eraztea utzi duten horrek, ikusten du (ikusitako ohi du, hobeto esanda) lan-jarduera adierazgarri kulturala balitz bezala. Arrantzaren inguruan metatu eskarmentuak, lehorreko koadrilak nahiz itsasoko "konpaniak"<sup>11</sup>, egitura hierarkizatuak eta lanaren izaera arriskutsuak eta ez-ziurrak konfiguratu dute elkarrekintza mota jakina, homogeneousotasun etnikoaren ideia ezartzen lagundu duena.

Hondarribiko arrantza izatea ez omen da izatea edonongo arrantzailea, ez da egitea edonolako lanbide, eta horri aitortu behar zaizkio jokabide-ezaugarri eta joko-hondar zehatza; urteetan zehar eta garaiz-garaiko kanpoko egoera ezberdinekiko menpetasuna eta barneko egoera konformista izango lirateke hauetako batzuk, batez ere, merkatu-harremanetan.

*Arrantzaleak, berea ezin saldu eta den-dena erosi behar*, arrantzaile jubilatu horrek zioen bezala, eta egoera hori hain izan da barneratuta eta normaldua ze ez baitio inolako eraginik errekonozitzen.

Egun, arrantzaile kidegoa kohesionatuta agertzen zaigu lan-jardueretatik ondorioztaturiko identitate etnikoaren inguruan, (hau, ordea, erdi-egia da) eta zentzu etniko bakar horrek kidegoari, homogeneousotasun kutsua eman dio. Identitate-prozesu honetan arrantzaile izateak gailentzen du (edo hobeto esanda, ez du ametitzen) *klase* kontzeptua, indargabetuz teoria sozial modernoan egingandako sailkapena (klase/identitate etnikoa) eta bat etorri globaltasunean garatutako mito berdintzailearekin.

Baina lan-jarduerak bi dimentsiotan du gaitasun identifikatzailea, batean, eta kasu honetan gertatzen den bezala, dimentsio kulturean finkatzen dena,

---

11. "Konpania" deritzo arrantzan, itsasontzi ezberdinen artean eta era iraunkorra edo behin behinekoan osatutako lankidetzeta-taldeari.

Anduaga, Jaime: 'Zahagi zaharrear ardo berria'. Lan-kulturaren eginahalak egokitze ekonomikoan

bestean, *klase* kategoria sozialari buruzko kontzientziapena eskuratzeko baliagaria dena eta hala den aldetik, proletargo-identitatea osatzeko balio du.

Dimentsio kulturala normalean, izan eta garatu zen eremu aurre-industrialean, industrialean, aldiz, *klase* dimentsioan zehar hel liteke dimentsio kulturale-raino. Hartara, garai postindustrialean, zein ote da, aro aurreindustrialean identitatearen oinarriak kokatuta dituen kidegoaren etorkizuna?

Kidego honen historia modernoan arrantzale izatea, berez, oharkabeko gizarte-klaseko ezaugarri bat izan ohi da eta kalitate honetaz baliatu zen elitea, klase ezberdinen artean eraikitako aldeak berezitasun etniko-kulturaltzat irudikatzean.

Orduan, uler daiteke zergatik ez den indarrez sortu gizarte-klasearen sentimendurik. Esteva Fagregat-ek Reich aipatuz dioen bezala:

Esta conciencia de clase (bere baitarako kontzientzia) no se desarrolla, pues, mientras el individuo se identifica con una propensión masoquista a considerarse humilde por antonomasia y a explicar su situación como propia de su destino natural (Esteva Fagregat, 1984: 97).

Ikusitako kasu honetan, kidegoak aintzat hartzen ez duena da, arrantzale gisa garatutako egitura sozialak gehiago zor diola gizarte klase-kontzeptuari identitateari baino. Hor kokatzen da historiaren erabilera interesatua non hirriaren eta kolektiboaren historia modernoaren interpretapenek elkar uztartzerik ez duten.

Kidegoko subjektu sozialak jarduten du bere eremuan historian egindako irudikapenaren arabera, era kontzientean ez bada ere. Berea sozializazio prozesu zentzudunaren ondorioa da, bere printzipiotan eta jomugetan kolektibitateak markatuta eta kolektiboan oinarrituta. Horregatik da arrantza bere esparru identitarioa, arrantza delako kidegoa elkartuta mantendu duena.

Arrantzari aldatu zaio bere izaera arbitrarioa (Saussureren zentzuan)<sup>12</sup> eta zentzu adierazle eta esanahia elkartu dira kulturalki, beharrezko izaera emanez.

Uztardura horrek balio du espazio globalaren dimentsio *a-urbanoan* eskubide kultural osoz mugitzeko, harik eta kidego-arrantzale izaten jarraituko duen arte. Halako baldintzapean Europar Batasunean integrazioa ez da ikusten kolektiboaren desintegrazio-ziotzat, kolektibitatearen erreprodukzio-baldintzak ainguratuta omen daudelako prozesu etno-kulturalean, nahiz eta identitate kolektiboa arrantzaren oinarrituta egon.

---

12. Egile honek, semiologiaren arloan esandakoaren arabera, "arrantza jarduera" izango litzateke beroni itsatsitako esanahiaren adierazle, "arrantzak" ordeztzen du, baliabide sozialez, espazialez eta denboralez hornitzen den kolektibo kulturala, hainbestearaino ezen oinarri identitarioa izatera iritsi baita; haatik, uztartze hori ez omen da logikoki beharrezkoa, bere lotura arbitrarioa da.

Banakoaren erabakiak, beraz, eta hauek ekintza sozialtzat hartuta, ezin dira konprenituak izan kolektibotik at, baina bada alde adierazgarri bat erabakiak hartzen dituen kolektiboa denean.

Kolektibo sozialaren erabakiak ez dira kokatzen lan-jardueraren esparruan, berak, lan-kulturaren oinarri identitarioa badu ere. Kolektiboak, horrela, izaera dikotomikoa du, alde batetik zuzkitzen da lan-kulturaren, eta hemen izaera egituragarri duen bitartean, bestetik espektrora zabaleko harremanetan parte hartzeko gune omen da, eta hemen izaera egituratuta hartzen du.

Baina lan-esparruan hartutako erabakiak testuinguru kolektiboan proiektatzen diren neurrian eduki litzakete kolektibo mailan halako edo bestelako eraginak, hainbestera ere jarduerari ez eustea erabakiko balute (eta horri ekitea ere bere ahalmenean dagoela kontuan hartu behar da) kolektibo osoa bertan behera etor liteke, esparru sozio-ekonomikoan, beraz, gailentzen dute objektibotasun kulturala<sup>13</sup>.

Lan-jarduera, maiz askotan, aldentzen da legokiokeen zentzu ontologikotik eta bere eraginak garatzen dira esparru identitarioan. Halako baldintzapean arrantzaleen jarduera ekoizleak balio du subjektibitatearen partikularismoa haus-

---

13. Erkoreka Gervasio J. Iñaki. In: *Itsas memoria* nº 3, *Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2000; 179-222 or. Luzea bada ere merezi du egile honek egindako ekarpen honi begirada bat emateak, bertan agertzen baita Kofradien inguruan, ilustrazio garaian osatutako botere-jokoaren adibidea.

(...) En primer lugar, afianzar con la propia embarcación el pago de las deudas de la cofradía conllevaba el derecho –crecientemente exclusivo con el paso del tiempo– a participar en las juntas de cofrades y a ocupar el cargo de mayordomo. Como he expuesto más detenidamente en otro lugar, entre los siglos XVII y XVIII las cofradías de mareantes experimentaron un riguroso proceso de oligarquización como consecuencia del cual se acabó reservando casi exclusivamente a los dueños de lancha el acceso a los principales órganos de gobierno del gremio. Pues bien, uno de los principales argumentos que se adujeron para justificar este proceso fue precisamente el hecho de que tan sólo los bienes de los dueños de lancha solían ser ofrecidos como garantía en las operaciones financieras que llevaba a cabo la cofradía, lo que les legitimaba para ocupar una posición hegemónica en su estructura funcional. Esta directa vinculación causal entre el férreo control que los dueños de lancha establecieron sobre la cofradía y el papel que su solvencia económica les abocaba a desempeñar como garantes de las deudas gremiales, la expresaba con suma claridad el mayordomo de la cofradía de Lekeitio, en una carta que remitió en 1690 al alcalde de la villa (...)

Una vez copados los órganos de gobierno de la hermandad y, por tanto, asegurado el control sobre la cofradía, los dueños de lancha instauraron una política de acuerdos gremiales claramente favorable a sus intereses particulares. ¿Para qué acaparar los órganos de gobierno de la cofradía, si no era para utilizarlos a su favor? Pues bien, son estos acuerdos gremiales con los que los maestros de la cofradía procuraban apuntalar sus intereses los que, a la larga, venían a constituir las «ventajas y utilidades» a las que se refiere el acuerdo gremial bermeano arriba citado.

Por lo que a este trabajo respecta, destacaremos dos tipos de «ventajas y utilidades», que guardan una relación directa con el estatus económico y social de los dueños de lancha.

La primera hace referencia a la posibilidad de que la cofradía subviniere, con cargo a los fondos comunes del gremio, a los maestros que perdiesen su lancha en algún naufragio o cuyas embarcaciones padeciesen averías o desperfectos. Con el establecimiento de un sistema de cobertura de contingencias lesivas, los dueños de lancha se valían de su posición hegemónica en el seno de la cofradía y de la facultad que ello les otorgaba de cara a adoptar acuerdos en nombre de ella, para «socializar» o, quizá, más precisamente, «comunitarizar» el grave riesgo que entrañaba para sus...



teko baina jada, ez zen biziraupena bermatzeko baliabide soila izanen, ezta uneko jarduera ere, eta halaber, ez zen izanen kolektiboaren iraunkortasuna bermatzeko gai ere.

Honetaz, kolektibo arrantzaleari dagokion elitea ere jabetu da eta honi buruz hartutako erabakiak, nahiz eta kolektiboak izan bere egitura formalean, partikularrak dira.

Arlo ekonomikotik ondorioztatu prestigio sozialak baldintzatzen ditu subjektuaren lan-erabakiak; lotuta daude, nolabait, prestigio hori gorpuzten duten baldintza sozialak eta esparru ekonomikoan subjektu mailan hartzen diren erabakiak.

Kolektibo batek, bere egituraren aldaketari buruzko erabakiren bat hartzen eta onartzen duenean, eta honek bere identitatearen aztarnetan aldaketaren bat suposa lezakeela susmatzen duenean, automatikoki jartzen dira indarrean egoera berria zurituko duten egokitzapen sinbolikoaren prozesuak. Normalean uztartuta agertzen dira gizarte aldaketaren aztarnak (krisi garaia) eta dagozkion eraikin sinbolikoak, (kolektiboaren berretsipena) eta bataren aktoreak eta bestearenak ez dute zertan berak izan. Horrela sor litezke, kolektiboaren barruan eta denbora eta espazio ezberdinetan, gertakariak (aldaketa) justifikatzen dituzten kodeen esanahi ezberdinen eta ziklo historikoaren (iraunkortasuna) arteko loturak.

Sinbolo-sistemak berak eduki lezake, kolektibo jakin batentzat, ekintzaren balio justifikagarria; ekintzak, ekoizpen-harremanen testuinguruan kokatutzat jotzen direnean, hots, adierazpen baten markoaren esanahi kodifikatuaren isla non espazio berri batentzako baldintzak sortzen diren.

---

...haciendas particulares, la necesidad de trabajar en un mar tan proceloso y cambiante como el Cantábrico, donde los repentinos e inesperados temporales anegaban todos los años un importante número de embarcaciones.

Las indemnizaciones que los gremios mareantes concedían para la reparación de las embarcaciones deterioradas por algún temporal o para la construcción de nuevas lanchas cuando éstas hubiesen naufragado se otorgaban a veces a fondo perdido y, en otras ocasiones, se concedían bajo la condición de que las cantidades entregadas fuesen devueltas por los beneficiarios de modo paulatino. Desde el punto de vista de su cuantía, estas prestaciones económicas cubrían en algunos puertos la totalidad de los gastos a realizar y, en otras localidades, se limitaban a sufragar tan sólo una parte del gasto realizado.

Veamos algunos ejemplos.

En el gremio de Hondarribia, la pérdida o el deterioro de una lancha se compensaba por parte de la corporación mareante mediante la concesión al maestro infortunado del dinero necesario para la construcción de una nueva embarcación, «...con la obligación de su reemplazo a partidas menores en cada año...». En Lekeitio, una ordenanza del siglo XIX prescribía igualmente que si alguna lancha de la agrupación se perdía, padecía una avería o naufragaba «...en la mar, estando a la pesca...», su propietario tenía derecho a percibir con cargo a los fondos de la cofradía «...la mitad de su valor, como igualmente de su maniobra y demás utensilios, graduando por inteligente (...); y si se perdiesen a más los cordeles o aparejos –añadía el precepto–, ciento veinte reales y si sólo los cordeles, 40 reales...». Las ayudas gremiales podían elevarse hasta alcanzar a cubrir el total del daño causado cuando se trataba de lanchas que saliesen del puerto «...a socorrer otra u otras lanchas que tubiesen que socorrer en la barra y (...) tubiesen alguna habería por dicho motivo...».

## 5. ERABAKIAK ETA ETORKIZUN KOLEKTIBOA

Gure arteko zenbait kontzeptu sozialak bikote aurkarizat emanak izanak oztopatzen du lortzea euren artean aurkaria ez den bestelako harremanaren perzeptzioa. Areago, bikoiztasun aurkarien aurrean sistema sozialak eskatzen du definizio-jarduera, hautaketa-erabakia, zeinen bidez identitatearen markoa finkatzen den, eta hau behin finkatuz gero definituta gelditzen dira ekintza-esparruak.

Hautaketa, ikuspuntu honetatik, botere-jardueraren baliabidea da, inolako aukerarik irudikaturiko errealitateetik kanpo egikaritzen ez delako; horrela, etorkizunaren denboralitatean, aldez aurretik ezarritako identitate-ezaugarriek, mugatzen dute ekintza-esparrua. Hautaketa, finean, identitate-esparruan mozorrotu-tako menpetasun jarduera da eta aldi berean askatasun-egoeraren adierazle.

Esan liteke badirela hautaketak zuzenak direnak dagokien markoan eginak dauden bitartean, horiek dira politikoki eta sozialki zuzenak direnak eta bide batez, aktoreen askatasuna azpimarratzeko balio dutenak.

Bitartean, erreakzio-ahalmena, alboratua gelditzen da banako-arloetan, beharbada, askoz espontaneoagoa delako; baina beti ere onartua eragingarria eta iraunkorra izanen ez delakoan.

Baldin eta kolektibo honen hautaketa mugatuta badago identitatearen markoan, eta identitatea, errealitate-irudikapenaren ondorio bat bada, aski litzateke hau eragitea lortu nahi den hautaketa-erabakia lortzeko, lortuta, gainera, hautaketa libre balitz bezala.

Banako-kolektiboaren dimentsioan, kasu honetan agertzen diren moduan, aplikagarriak dira termino hauek. Bertan egindako zenbait kontaktetan, arrantzale-izaera agertzen da onartu eta barneratu den identitatearen alderik garrantzitsuena bezala, nahiz eta erabaki horretan aukerarik eduki izan ez.

Bere identitatearen osaketan automatikoki sartzen ditu berak bizi ez dituen egoerak eta erabakiak, denboran eta espazioan zeharkako eskarmentuak, alegia; baieztatzen da bere subjektibotasuna sozialki eta sinbolikoki osatuta dagoela eta *bizipenaren kontaktetan*, askotan, hurbiltzen da bere buruaren historia ofizialari<sup>14</sup>.

Kidegoaren espazio *a-urbanoaren* irudikapen-eredua, lan-jardueran eta lurraldetasunean oinarrituta, identitate etnikoaren sentimendua lortzeko bideratuta zegoen bitartean, hiriko espazio urbanoak bereizten zituen bi dimentsio horiek, baina kidegoak, urbanizaziorako prozesuan sarturik, aurrenekoari dagozkion ezaugarriak bigarreanean egokitu nahi izan ditu, eta ezin. Horrek eskatuko luke errealitatearen irudikapen berri bat eta eskaini zaion bakarrean kolektibo arrantzalea ez da agertzen, agertzen dena da jarduera ekonomiko abstraktua, subjekturik gabekoa.

---

14. Bourdieu, P: "Tout permet de supposer que le récit de vie tend à se rapprocher d'autant plus du modèle officiel de la présentation officiel de soi..." (1994: 87).

Irudikapen berria espazio fisikoko birmoldaketarekin hasten da eta lekuko sistema ekonomikotik jarraituz, antolakuntza soziala eraginez bukatuko da. Ez da ordea, prozesu bukatua eta itxia, kolektiboaren existentzia-baldintzak ukitzen diren ezkereronek beste esparru identitarioan kokatuko ditu baldintza hauek, ala bestela kolektibo gisa desagertuko da.

Ez da, ordea, inolako erreakzio mailarik agertzen kolektibo baitan.

Horrela, EB ereduak, eta honetatik ondorioztaturiko egoerak, kolektiboa eragin du bi esparruotan, batetik eredu metropolitanoa eta dagokion espekulazio higiezin sakabanatzen ari dira kidegoaren eremu fisikoa, bestetik, eredu ekonomiko neoliberal suntsitzen ari da egitura ekonomikoaren inguruan garatutako gizarte eta ekoizpen harremanen eredu tradizionala. Horrela kidegoaren alde identitarioa oinarri klasikorik gabe gelditzen ari da.

Aldaketa-posibilitatearen aurrean mantsoago ibili ohi da galtzeko gehien daukan hori eta bi banako sozial mota horietan patroiar-madureak askoz lotuagoak daude kolektiboari produkzio-baliabideen bidez. Hartara, igartzen da portieran bi erritmo ezberdinak, denbora/espazioari buruzko eskarmentua irudikatzen da denboralitate ezberdinez, bata historikoa eta kolektiboari dagokiona eta bestea garaikidea eta ekoizpen unitateei dagokiena, baina biotan ulertzen da aldaketa, denbora historikoa ematen den saihestezinezko urratsak balitz bezala, bertan ikusten da ez dela bakarrik egoera partikularrak aldatuko direnak baizik eta kolektibo osoarenak.

Nire ustez, sistema kulturean eta gizabanako arloan askoz eragin handiagoa dute ekoizpen arloan ematen diren aldaketak sinbolo sisteman emandakoak baino, (hauek baino, ezinbestekoak dira berrikuntzak eta aldaketak esparru kolektiboan barneratuta izan daitezten) Behintzat, ondorio berehalakoagoak sortarazten ditu, eta hala ere, ikusi ahal izan dut bertako komunitate horretan ez dela hori horrela baloratzen. Komunitate mailan askoz garrantzi handiago ematen baitzaio kapital sinbolikoaren aldaketari.

Kolektibo arrantzalean, sailkapen soziala eta identitatea lotuta izanik bi kontzeptuak uztartzen dira jarduera ekonomikoaren ardatzaren inguruan, eta honetan hartzen diren erabakiak kolektiboari dagozkio era zuzenean eta kolektiboan bertan eragin mota ezberdinak dituztela suposatzen behar da.

Kontzienteki ala ez, arrantzale-komunitatea behartuta dago bere trinkotasunaren puntu grabitazionala lekuz aldatzera. Orain arte, delako homogeneousuna arrantza-jardueratik ondorioztaturiko antolamendu sozialean oinarrituta bazegoen, orain ikusten da antolamendu soziala erabiltzen dela kolektiboaren existentzia bera kolokan jar lezakeen erabakiak justifikatzeko.

Pentsatu behar dugu egoera ekonomiko berriak gizarte eta ekoizpen harreman berriak sustatuko dituela eta ondorioz, lurraldetasunaren inguruan oinarritutako antolakuntza sozio-sinbolikoak ez lukeela ezaugarri kulturean oinarrituta izateko aukerarik. Desintegrazio soziala, ekonomikoarenaren kariaz burutuko zela.

Ekoi-zen-harremanak klase sozialen oinarria izanik, lan-arloan eta sozialean emandako ezberdintasun-mailek beren isla eduki beharko zuten esparru etniko-kulturaleran. Baina hemen prozesua alderantzizkoa izan zen. Identitate etniko-kulturalak kolektiboan daukan eragina ikusita, esan liteke homogeneousotasun kulturalak balio izan duela lan-arloan, alegiazko berdintasun korrespondentzia eraikitzeko; hain zuzen, klase homogeneouso kutsuaren isla osatzeko. Horrela, "berdintasun-egoera", identitate etnikoaren inguruan finkatutako homogeneousotasunaren irudi interesatua zen. Gizarte eta ekoi-zen harremanetan abiapuntua daukan ezberdintasun sozialak, *klase* kontzeptua garatzeko zioa izan beharrean, prozesu kulturalaren ondorio naturalizat osatzeko balio izan du.

Eta arlo identitarioan, kolektibo gisan, prozesu finkagarria garatzen zen bitartean, esparru ekoi-zean egokitzapen prozesuak eman ziren, kolektibo nahiz banako mailan azaldu ziren ekimen ezberdinak, teknologian zein sektorearen kapitalizazioaren inguruan, ahalezko bakarrik espazio batean non ezberdintasun soziala homogeneousotasun kulturalaren ezaugarritzat agertzen den. Horregatik uler daiteke bertan *klase* kontzientzia eskuratzeko inolako urratsik ageri ez izatea.

Diskurtso instituzionalizatutako mezuan, horrenbestez, igartzen da, ezberdintasun soziala mozorrazteko erabilitako homogenotasun-egoera dela, talde etnikoaren dinamika kontrolatzeko erabilitako argudioa, eta ondorioz ezberdintasunarekiko eskarmentua gizarte egituraren kategoria asimilatua da. Horko aldetik garrantzitsua da ezberdintasun sozialari eustea kidegoaren espazio etnikoan.

Esparru sozialean eraginik gehien daukan ekintza partikularra lan-jarduera omen da, honek proiektio eta balorapen soziala edukirik ezberdintasun soziala ezartzeko baliabide soziala da, kapital jakin bat eskuratzeko baliabide zuzena, hirietan batez ere.

Komunitate *a-urbañoetan* beste balio erantsi bat badauka, alegia, kolektiboaren kultura-osagai izatera iritsi daitekeena, horregatik nahiz eta banakoa protagonista izan ez, ezinbesteko ondorio soziala darama bere baitan, hori garbi agertzen da lan-jarduera erreferentzia identitariotzat duen kolektibo honetan.

Gune tradizionaleran, kolektibotik banakoari iristen zaion "aholkuan" laburbilduta eta mugatuta gelditzen zen banakoaren aukera-esparrua. Zein motatako lan-jarduera eta honen barruan zein maila onartu behar zuen, nolabait, aurretik esana zegoen. Honen inguruan mugitzen eta sustatzen ziren sinbolo adierazpen sistema eta elkarrekintzak gauzatzen zituen ordenu soziala.

Banakoa eta ekintzarako bere gaitasuna klase sozial jakin bati zegozkion, (ekintzarako gaitasuna da, hain zuzen, espazio soziala ahalbidetzen duena) horren osagaia zelako, eta kolektibo jakin baten kide zen neurrian subjektu sozialak betetzen zituen jarduerak, nahiz eta ondorioek bere buruan bakarrik eragina zeukatela zirudien, kolektiboraino transferitzen ziren. Horrela bermatzen zen kolektiboaren iraunkortasuna, beste norbaitek, beste nonbait ezarritako parametroen arabera.

Ekintza sozialaren bidez, eta honen adierazpen hurbila denaren bitartez, lana alegia, bideratzen da objektibotasuna/subjektibotasuna dialektika, harago, baita identitatearen adierazpen dialektikoa ere. Horrela, eta Tourainek gogorarazten digun bezala, "subjektu historikoa harrapa daiteke kolektibitate jakinetan soilik" (1969: 68).

Eta pentsatu behar dugu kolektibitate horretan identitate kutsua existitzen den neurrian subjektua ere identitate horren objektua izanen dela. Lan-jarduerak, hartara, identitate horren ezaugarria zenez, proiektio kolektiboaz gain funtzio partikularra zeukan.

Hala ere, globalizazio ekonomikoaren kariaz, azkeneko honek gailendu du proiektio kolektiboa. Lan-jarduerako esparru erabakitzaitetik hartutako zenbait jarrerak askoz zer ikusi handiago dute egoera partikularrekin kolektiboaren etorkizunarekin baino.

Lan-jarduera, etno-kultural izaerakoa den unetik, lan-esparruan hartutako erabakiak kolektiboaren denbora historikoaren markoan kokatzen dira baina, kolektiboan, denbora-espazio kontzeptua, *soziala* nabardurapean ikusten ez denez, erabakiak hartzeko jantzita dagoen banakoak hartzen dituen erabaki ekonomikoak, batez ere patroï-armadoreen jardueraren bidez, laguntzen du kolektiboaren desintegrazioa.

Sistema, ez da dirudien bezain ideala. Egun, gizabanako-dimentsio sozialarentzat, beharbada, giro urbanoak emandako bizigarriak kolektiboak eman liezaiokeen zentzua baino eragingarriagoak dira. Hau da, aktore berak maila partikularrean gizarte-aldaketa onesten duen bitartean, jendaurrean burututako jardueraz gaitzesten du.

Gizarte eta ekoizpen harremanak nahasten dira etno-kulturaren adierazpenarekin, batzuetan eraginkorra eta bestean eragina izanik; lan-kultura elkarrekin-tza horren ondorioa da eta bere oinarritzko parametroei eutsiz esparru globalean integrazioa saiatzea, bateraezinak diren ereduak erkatzea da, merkatu-ekonomiak egitura ekonomiko tradizionalaren desegituraketa suposatzen duen heinean kolektiboaren desintegrazioa ekarriko luke.

Ez dira nahikoak gizarte harremanak soilik espazioa eraikitzeko, hauek zentzu-harremanak izan behar dira.

## **BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA**

BOURDIEU, P. *El baile de los solteros*. Barcelona: Anagrama, 2004.

—. *Raisons pratiques*. Paris: Editions du Seuil, 1994.

DELGADO, Manuel. *El animal público*. Barcelona: Anagrama, 1999.

ERKOREKA GERVASIO, J. I. "Las compañías de pesca del litoral vasco durante el Antiguo Régimen". En: *Itsas memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, nº 3, 2, 2000; pp. 179-222.

ESTEVA FABREGAT, C. *Estado etnicidad y biculturalismo*. Barcelona: Península, 1984.

LEROI-GOURHAN. *El gesto y la palabra*. Caracas: Universidad Central de Venezuela, 1971.

MEIER, Richard. Paris: P.U.F., 1972.

MORENO, I. En: *Áreas*, nº 19, 1999.

VALENCIA GARCIA, G. *Entre Cronos y Kairós*. Anthropos, 2007.

TOURAINE, Alain. *Sociología de la acción*. Ariel, 1969 (1965).